

KORRESPONDENTZIA ERRATUA DA NIREA

Iñaki Gurrutxaga

Orio, 17 urte

memoria fotografikoa izatea hobe dela sinestarazi
nahi ziguten
baina denbora futuroak erakutsiko digu harrika-
den konbertitze iragarriak ez duela Kodak ziuta-
terik ezagutuko
azal leunen abenida itsaskorretan
kaixo maitia
zutaz ahaztu nahian nabil baina buruz ikasi zintu-
dan eta ezin dut
anatomia perfektuegia baita azken gaiak dakarre-
na kartoizko neuronek erreziklatzeko
fanatismoaren errepublikan demokrata gutxi eta
zubi altxakor bakarra erresuma desiraturantz
San Francisco kaleko farmazietan galtzen naiz ni
ere
aukerek bazter gehiegi okupatu dituztelako nire-
tzat
eta erreabilitatu anonimo
bidean aurrera noa aurpegia zure izenaz estalita
bat gehiago
transizistek eraikitako lindane planten suburbioe-
tan
ixiltasun kutsakorregia da zurea
inperio disfuntzionalak neureganatzeko
dena den matematika eta
geografia asko jakin behar da errebelde izateko

eta nostalgiaren magalean igaro beharko dugu
geratzen zaigun eternitate apurra

agur maitia
plangintza paraleloek deskonposatuko gaituzte
inoiz kimikak ezagutu ez gaituenean
nire simetria optikoak lerroak biribiltzen baditu
ere
infinituaren absurduaz ohartzeke zaude eta
aplikazio desegokiak dira zure erlijioarenak
after hours-ak zabalik dauden begiratuko nuke
oroitzapenek dagoeneko mozkortuta edukiko ez
banindute
zuri-beltzean gogoratzen zaitut eta kolore eske
zureganatzeak
hamazortzi urtetik gorakoentzako kalifikazioa
eskatzen dit
berdea urdina tinta malkoak desioa ezpainak zen-
bakiak eta hitzak
negatibo gutxiegi izan daitezke memoria konpleto
batentzat
eta bidaltzen dizudana
korrespondentzia erratuegia postari subjeliboen-
tzat.
vale.